



Ander Iturriotz

ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

«ETA ezker abertzalearen gaineratik pasa da berriz ere»

Ordizia (Gipuzkoa), 1961. Soziologia eta filosofia ikasia; EHUko irakaslea eta analista politikoa da. Espainiako Kongresu eta Senatuko hauteskunderen biharamunean egin genuen elkarrizketa. ETAk hil zuen PSE-EEko Isaias Carrascoren omenezko manifestazioa Arrasateko kaleetan zela.

MIKEL ASURMENDI

Egiguzu hauteskunderen gaineko argazki orokorra, fokua Estatuan jarritz.

Lehenbiziko planoan bipolarizazio teknikoa ageri da. Estatuko agintea jokoan zegoen, eta bi hautagai nagusien arteko lehiak azkartu du jokoa. Lehia modu gehigarrian izan da gainera: telebistaz eman ziren aurrez aurreko saioek bi hautagaien norgehiagoka ikaragarri nabarmendu zuten. Emaitzak 2004koen antzekoak dira *-shock* egoera batean eman ziren orduan— eta hori errepikatzea txarra da. Tentsionamenduak PSOE saritu du. PPK halere bere botoei eutsi die. Ez du irabazi ordea, eta barne gatazkak izango ditu. Raxoiren etorkizuna ikuskizun dago. Oro har, IU eta alderdi nazionalistak dira kaltetuenak, ERC eta BNG bereziki. Honen arrazoiak bipolarizazioa da, baina PSOEn eta PPren logika politikoan sartu izana konstante hartu beharko litzateke, baita IUEBren kasuan ere.

Begirada Nafarroara ekarriz orain.

NaBaik 2004an lortu zuena lortu du, baina emaitza hauek Foru Parlamenturako izan zirenekin alderatzea komeni da. NaBai bigarren indarra izan zen orduan, PSNren aurretik. Orain PSN ia-ia UPNren ondoan kokatu da. PSNk gestio traketsa egin zuen arren oso erraz irabazi du galdutakoa. NaBaik kontzeptualki botoak galdu ditu, aukera ezegonkorra da. Arrazoiak polarizazioa da, ados, baina zerbait gehiago ere izan daiteke.

Faktura pasa al dio PSNrekin akordio batera iritsi ez izanak?

Ez dakit faktura pasa dion. Joko zelaia eta eztabaida ezberdinak izan dira orain. Orduan Nafarroako Gobernua zegoen jokoan eta orain Madrilgoa. Galdu zituen botoak modu naturalan berreskuratu ditu PSNk. Dena dela, horrek ez du esan nahi hurrengo

hauteskunde foraletan emaitza berberak izango direnik eta NaBaik hobeak eskuratuko ez dituenik.

EAEra etorritz, abstentzioaz ikuspegia.

Abstentzioa ia egonkorra da, aldaezina. Ezker abertzaleak bere botoari eusten dio edozein dela aukera: abstentzio, boto baliogabe, boto aktibo edo pasiboa izan. Abstentziora joandako botoak abstentzio teknikoaz harago daude. Arrasateko atentatuak gauzak ondo definitu ditu hala ere, atentatuaren aurretik jende gehiago egon zitekeen abstentzioaren alde, ezker abertzalekoa izan ez arren.

Abstentzioa antzekoa izango zen, ETAk Isaias Carrasco hil ez bazuen?

Atentatuak abstentzioaren esparru ideologikoa markatu zuen, abstentzioa ezker abertzalearen hautua zen. Ezker abertzaleko boto poltsa finko horrek

PSEri emango al dio botoa? Ezinezkoa da. EAJri ez dio emango ere. Bere esparru naturala abstentzioa da jende asko erreta zegoen-eta.

Abstentzio motak izan daitezke, halere.

Bai. Alegia, abstentzioa pasiboa edo aktiboa izan al da? Aktiboa da ezker abertzaleak planteatu zuen bezala. Bestea da, nik paso egiten dut. Beraz, ezker abertzaleko sektore batek ez du inondik inora ulertu atentatu hau, sektore oso zabala da gainera, barne eztabaidak ekarriko dizkiona. Ezker abertzalea esatea ere asko da, non eta nola dagoen ikusita. Eztabaidak kudea ditzakeen buruzagi politikorik gabe dago-eta.

Hauteskundeen aurretik eta ondotik modu ezberdinez baloratu daiteke atentatua, politikoki.

Balorazioa bera da, emaitzak begi-bistakoak dira, ETAk erakutsi du berriz ere izugarritzko ahalmena duela egoera politikoa baldintzatzeko, oso modu basatian betiere. Baina ondorio politikokoak jasan dituen ez da ezker abertzalea izan, batez ere EAJ izan da. Eta ez bera zigortu duelako soilik, PSE saritu duelako baizik.

Ondorioz...

Alderdi garailea PSE izan da. Arrakasta ulertzeko estatu mailako joera kontuan hartu behar da, baina honek ez du PSEren arrakasta osoa erakusten, PSEk arrakasta handiagoa izan du EAEn Estatuan baino. Boto gehigarri bat jaso du, Arrasateko atentatuaren ondorioz joan zaiona.

Alderdi abertzaleen gainean zentratu fokua orain.

Beren boto galera PSEren emaitzei lotuta dago. Hego Euskal Herriko hauteskundeetan hau ez zen inoiz gertatu orain arte: EAJk boto asko galdu du eta ez dira beste alderdi abertzaleetara joan. Donostian eta Gasteizen alderdi guztiek galdu dituzten bitartean PSEk hamar puntu irabazi ditu. Bilbon izugarria izan da: EAJ bigarren lekura jaitsi da eta PSE %30 puntu baino gehiago irabazi du. Transbasea zuzena izan da. Ez dut esan nahi hurrengo hauteskundeetan egoera lehenengotara etorriko ez denik, baina EAJk ez du inoiz koiunturalki horrenbeste boto galdu.

EAK eta Aralarrek behera egin dute. Madrilera begira egindako apustuetan

gero eta margen txikiagoa geratzen ari zaie. EAK pentsatu behar du ea benetako espazio politikoa duen EAEn, bakarka joateko esan nahi dut. Aralarrek ere gogoeta bera egin beharko luke, nahiz eta Aralarrek ibilbide laburragoa izan. Halere, bere aukera ez da nabarmendu.

“Zapaterok badu interesik normalizazio prozesuari ekiteko? Zer irabazteko baina?”

Nola ikusten duzu uneon EAJ?

Egoera txarrean dago, baina hurrengo hauteskundeak bere alde dauzka. Horri begira hasi behar du lanean. Ez dakit argi duen egin behar duena. Imazen estrategiak ez dizkio emaitza onak ekarri eta Urkulluren zuzendaritzak ez du jakin bidea zehazten, edo ez dugu eza-gutzen behintzat. Uneon keinu moduko bat egin dio PSOERI bakegintzari lotzeko berriro, badakielako horrek botoak emango dizkiela.

Ibarretxe lehendakaria non geratu da?

Ibarretxe ia ez da kanpainan agertu. Ibarretxe Planarekin zer egin ere ez daki EAJk: batzuek aurrera diote bestetsuek aldiz... Ez dakigu nondik nora joko duen edo duten. Arrisku handiak dauzka aurrean. Nahi baldin badute giroa berotu dezakete, baina oraingo zuzendaritzak ez dirudi hortik joko duenik. Giroa hauteskunde autonomikoetan berotuko dute, baina horretarako asko falta da.

Kanpaina zer iruditu zaizu?

Txarra. Alderdi abertzale guztiek kanpaina txarra egin dute, baita EBk ere. Aldiz PSOERen kanpaina oso ona izan da, ez orain bakarrik, Zapaterok aspaldi markatu zuen kanpainaren agenda.

“Hego Euskal Herriko hauteskunde emaitzak ez ziren inoiz gertatu: EAJk boto asko galdu du eta ez dira beste alderdi abertzaleetara joan”

Zapatero nola ikusten duzu estatista bezala?

Ez dut ikusten estatista baten mailan. Europako adituak bat etorri dira euskal auzian bere kudeaketa txarra epaitzean. Ez Zapaterok ez Raxoik ez dute maila politikorik eman. Beren politika gero eta gehiago oinarritzen da AEBetako marketin erudian. Espainiako Gobernuak, ez bakarrik kultura, kontsumo, ohitura eta hedonismo mailan, politikoki ere hango estrategiak erabiltzen ditu eta hori zinez kezagarria da.

Zapaterori margena geratu al zaio bake prozesuari berrekiteko?

Margena? Nik hauxe galdetuko nuke: Zapaterok badu interesik berriz ere normalizazio prozesuari ekiteko? Zer irabazteko baina? Margena handia dauka. Arrasateko atentatuak prozesuari berrekitea atzeratu du, baina ez da gauza bera –su-eten egoeran betiere– hauteskundeak irabazi ondoren prozesuari ekitea, demagun urte batera, edo hiru urte pasa ondoren hastea. Orduan hauteskundeak izango dira eta agur. Denbora oso garrantzizkoa da prozesu hauetan. PSOEk ahaztu behar luke Arrasateko atentatua, baldin zeinu bereko beste atentatu bat ez badago noski. Horrela balitz gauzak asko luzatuko lirateke.

Noren kalterako bereziki?

Ezker abertzalearen kalterako. Ezker abertzaleak ezin dio honelako egoera bati denbora askoz gehiagoz eutsi, klandestinitatearen bidea har lezake. Kezka hori badago. Zuzendaritza osoa kartzelan du, ez dauka benetako gogoeta garatzeko jenderik. ETAk beti egiten du nahi duena eta normalean ezker abertzalearen gainetik pasa izaten da, orain gertatu den bezala. Ezker abertzalea kanpaina polita egiten ari zen abstentzioaren alde. Arrasateko atentatua gertatu zenean kalean zebilen bere aukera aditzera ematen. Non geratu zen aukera? Non bere kanpainaren eta abstentzioaren legitimazioa? Testuinguru horretan jendea pasota bihurtu daiteke erabat: etxean gertzen gara, ez gara politikan engaiztzen, garai hobeak etorriko diren esperoan edo ETAren nahietara makurtzen gara. ■